

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

42 gaztek amaitu dute nekazaritza-sektorean sartzeko INTIAk antolatutako ikastaroa

Amaiera-ekitaldian, Elizalde kontseilariak adierazi du 2018ko lehen instalaziorako laguntza-deialdia 3,5 milioikoa izango dela

Osteguna, 2018.eko abenduak 13

Guztira 42 lagunek (12 emakume eta 30 gizon) parte hartu dute gazteak nekazaritza-sektorean sartzeko Foru Gobernuo Nekazaritzako Teknologia eta Azpiegituren Nafarroako Institutua sozietate publikoak Nafarroako Rural Kutxarekin elkarlanean antolatutako abeltzaintzako ikastaroan eta nekazaritzako beste ikastaro batean.



Elizalde kontseilariak parte-hartzaileekin

Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioiko kontseilari Isabel Elizaldek gazte parte-hartzaileei diplomak emateko ekitaldian parte hartu du, eta, aurrez, eguerdian, Uharteko Don Carlo hotelean, ekintzailetzari buruzko jardunaldia egin da. Ekitaldian egon dira INTIAko kudeatzailea, Juan Manuel Intxaurrendieta, eta Pilar Larumbe, Gazteen Instalazioko INTIA taldeko dinamizatzailea.

Elizalde kontseilariak adierazi du datozen egunetan argitaratuko dela 2018. urterako laguntza-deialdia. Ildo horretan, nabarmendu du “Nafarroako Gobernuak legegintzaldi honetan %40 gehitu duela lehen instalaziorako laguntzen zuzkidura”. Zehazki, 2016ko eta 2017ko deialdietan, 3,5 milioi banatu ziren bakoitzean, eta, horri esker, urte bakoitzean 92 profesional sartu ziren. 2018ko deialdian ere zuzkidura bera izango da, eta, horrela, beste 92 profesionalen eskaerak artatu ahal izango dira. “Esan dezakegu, oraintxe bertan, Nafarroan nekazaritzan aritu nahi duten gazte guztiek, baldintzak betetzen badituzte, horretarako aukera izango dutela”.

Elizaldek emakumeen presentzia ere azpimarratu nahi izan du, “garrantzitsua bezain itxaropentsua baita. Emakumeek landa-munduan egin duten lana garrantzitsua eta erabakigarria izan da beti, baina askotan haien ekarpena oharkabean pasa da”. Hori dela-eta, “pozik” agertu da ikastaro horietan kopuru handiak parte hartu duelako, “laster zuen ustiapenen jabeak izango baitzarete”. Sektorrean sartuko direnen %27a emakumeak dira, “portzentaje altua beste erkidego batzuetakoarekin alderatuta”, esan du kontseilariak.

Nekazaritzan eta abeltzaintzan oinarritutako ikastaroak

Nekazaritzako ikastaroa Erriberrin egin da eta abeltzaintzakoa Atarrabian. Ikastaroetan zehar, gazteek beren ustiapenaren inguruko hausnarketa egin ahal izan dute, nekazaritzako jardueran zein ustiapen-ereduekin sartuko diren jabetzeko. Halaber, lankidetzeta eta dibertsifikazioa bezalako alderdiak jorratu ahal izan dituzte, etorkizunerako bi erreferentzia-elementu izanik, eta landa-ingurune berrikuntza eta autoestimua ere bai.

Horrez gain, erreferentziazko jardunbide egokien adibide moduan, nekazaritzako eta abeltzaintzako hainbat ustiapen bisitatu dituzte, haien lan-sistema, produkzio-eredua, belaunaldi-aldaketa edo berrikuntza direla-eta, jarraitu beharreko eredutzat hartuta. Modu berean, intxaurren sail bat ezagutu dute eta produktua garbitzeko, lehortzeko eta ontziratzeke ondoren egiten den prozesua; ekoizpen ekologikoko baratza; karden ustiapena eta barazki freskoa, garbia eta ontziratua merkaturatzen duen negutegia; Evenaren mahastiak, saiakuntzak eta bodega; Betizu arrazako behi autoktonoekin eta arrautza ekologikoak egiten dituzten oiloekin lan egiten duen familia-unitatea; eta ardi latxaren etxaldea eta dagokion gaztandegia.

Gazteak sektorean sartzeko ikastaroan 200 ordukoak izan dira, abuztuaren amaiera aldera hasi ziren, eta Gazteak Laguntzeko INTIA enpresa publikoa garatzen ari den Plan Estrategikoan sartzen dira. Parte hartu duten gazteak batez beste 30 urtekoak dira; gazteena 19 urtekoa.

Zehazki, nekazaritza-ikastaroan 21 gaztek (6 emakume eta 15 gizon) parte hartu dute, eta, besteak beste, arlo hauetan lan egingo dute: ekologikoa, baratze ureztatuko landareak, mahastiak, lehorreko zerealak, fruta-arbolak, olibondoak eta negutegiko baratzen haztegia. Haien ustiapenetan garatuko dituzten zenbait jarduera berriak izango dira; hala nola, Accionarentzako biomasa ekoiztea, landutako frutarekin marmeladak egitea, baratza eta haragitarako behiak jarduera mistoa, kipularen haziak ekoiztea Holandara esportatzeko, landare apaingarriak eta lorategiko lan ekologikoak, eta familiaren bodegarako mahats ekologikoa ekoiztea.

Bestalde, abeltzaintza-ikastaroan beste 6 emakumek eta 15 gizonek hartu dute parte. Haien lan-orientazioa ere askotarikoa izango da: esnetarako ardiak, haragitarako behiak, landako oilaskoak eta oiloak, esnetarako behiak, zaldiak, haragitarako ardiak eta ahateak. Jardueren artean, ustiapen bat bertako sagarrondo hazkuntzan eta esnetarako latxa ardietan arituko da, beste bat esnetarako ardiekin gaztandegi eta guzti, eta beste batean Nafarroako Jaka bezalako bertako arrazekin egingo dute lan.

Ikastaroetan, jorratu diren gai ezberdinetan profesionalak, espezialistak eta erreferenteak diren 45 hizlarik hartu dute parte (25 INTIA enpresa publikokoak). Programetan moduluak landu dira, nekazaritza-sektorean lehen instalaziorako giltzarriak izanik; baita ere, laneko arriskuen oinarritutako prebentzioa, nekazaritza-enpresaren oinarritutako kontabilitatea, nekazaritza-enpresaren kudeaketa iraunkorra, nekazaritza eta abeltzaintza ustiapenaren kudeaketa eraginkorra, eta ustiapenaren eta ekintzaitzaren diseinuko zeharkako modulu berria.

Prestakuntza-programa Landa Garapeneko Europako Nekazaritza Funtsak eta Nafarroako Gobernu Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazio Departamentuak batera finantzatu dute.

Ekintzaitza-jardunaldia

Gaurko jardunaldiari Pilar Larumbek eman dio hasiera; hau da, Gazteen Instalazioko INTIA taldeko dinamizatzaileak. [Nekazaritzako Enpresak Sortzea bultzatzeko Zerbitzua](#) lanean ari da belaunaldi-aldaketaren egungo arazoa konpontzeko, nekazaritza-sektorea gazteentzat erakargarri egiteko landa-herrietatik ez alde egitearren, eta emakumeen ahalduntzea bultzatzeko. Ondoren, Nafarroako Rural Kutxako Luis García eta Sergio López finantzaketak duen garrantziaz eta nekazaritza-sektorean lanean hasteko beharrezkoak diren gazteetaz aritu dira.

Jarraian, bi gaztek haien ekintzaitzako esperientzia arrakastatsuen berri eman dute. Leyre Iribarren sagarrondo sail baten jabea da Oskotzen, eta Mikel Azkaratek familiarekin batera esne-behi ekologikoen ustiapena eta "Jauregia" gaztandegia kudeatzen ditu Anitzen. Segidan, Alberto Pardo, ekintzaitzako

dinamiketan aditua, konplexurik gabe ekitearen inguruan aritu da.